

6. ZABOR TOXIKOA (18 ARGAZKIAK)

Argazkian ikusten ari gara lehengaia eta azken produktua, gutako askok dugun mugikor ohiko bat. Zuetako zenbatek duzue mugikor bat? Mugikorrik gabe hilabe oso bat egon ahal zaitezket? Zenbat mugikor izan dituzue lehendik? Zer egiten duzue mugikor zahar edota hondatuekin? Bizitza amaitzen denean, non bukatuko du? Zer gertatzen da mugikorreko 3T+G mineralekin?

Ordenagailu zaharrak, mugikorrak, etxetresna elektrikoak, MP erreproduzigailuak, tabletak, USB memoriak, inprimagailuak etab. Batzuk hautsi egiten dira, beste batzuk zaharkituta gelditzen dira teknologiaren aurrerapena eta zaharkitze programatua dela eta, edo, besterik gabe, gehiago gustatzen zaizkigun ezaugarriak dituen modelo bat ateratzen da. Alegia, mugikorrak zabor elektronikoaren parte bat dira. Zabor elektroniko deritza balio-bizitzaren amaierara iristen diren, eta, beraz, baztertzen diren, gailu elektriko edo elektronikoaren multzoari.



Arrazoi askok eragiten dute halako zabor elektroniko izugarria, baina, zalantzarik gabe, bi arrazoi nagusi aipa ditzakegu: kontsumo neurrigabea eta zaharkitzapen programatua, hau da, gailuak asko ez irauteko moduan diseinatzea. Mugikorren erabilera arduratsu batek hauen bizi iraupena luzatzea lagundu dezake, KEDko mineralen erauzketan eragina gutxituz.

Arazoaren dimentsioaz ideia bat egiteko, European, batz bestea, biztanle bakoitzak urtean 14kg hondakin elektroniko sortzen ditu gutxi gorabehera. Basileako Konbentzioak debekatzen duen arren, hondakin hauetako askok Afrikako edota Asiako herrialde batzuetara bidaltzen dituzte, bigarren-eskuko merkaturako izango balira bezala, baina hondakin teknologikoko

6. ZABOR TOXIKOA (18 ARGAZKIAK)

zabortegi erraldoietan amaitzen dute. Zabortegi hauek sortutako giza kostuak eta ingurumen-kostuak izugarriak dira; izan ere, gailu horiek oso substantzia toxikoak izaten dituzte, bai osasunarentzat bai ekosistementzat ere, hala nola merkurioa, kadmioa, kromoa, edo ozono-geruza kaltetzen duten klorofluorokarbuoak. Zabortegi ezagunetako bat Agbogbloshie auzokoa da, Accran, Ghanako hiriburuan.

- **Bideoa:** “Zaharkitzapen programatua” (Iturria: Zukgu prozesua. Bideo honetan agertzen diren irudi eta edukiak “Comprar, tirar, comprar” dokumentalekoak dira)

[Ikusi.](#)

- **Infografia:** “Non nahiko zenuke zure mugikorrak amaitzea?” (Iturria: ALBOAN) [Ikusi.](#)



ALBOAN

Jesuitek bultzatutako Fundazioa

-en proiektu bat



TECNOLOGÍA
LIBRE DE
CONFLICTO

www.tecnologialibredeconflicto.org

Lortzeagatik

Laguntzailea:



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN